

XEDAPEN OROKORRAK

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

2803

AGINDUA, 2012ko ekainaren 6koa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuarena; honen bidez, ikasturte hasierako esleipen-prozesua arautzeko da, behin betiko destinorik ez duten edo betetzen ez duten karrerako irakasle funtzionarioei edo lan legepeko irakasle finkoei dagokienez.

Ikasturte-hasierako esleipena urtero burutzen diren planifikazio eta langileen prozesua batzuen azken urratsa da, eta eskola-elkarte osoari eragiten dio.

Hain zuzen, planifikazioa ikasleak matrikulatzen direnean hasten da. Haien datuekin eta antolaketa-irizpideak aplikatuta, hezkuntza-zerbitzu egokia emateko behar diren lanpostuak zehazten dira. Bestetik, langile-zerrendek gorabeherak izaten dituzte, sisteman altak eta bajak izaten direlako, eta destino-aldaketak edo aldi baterako hutsegiteak daudelako.

Lanpostu gehienek horiek betetzen dituzten behin betiko titular bat dute. Beste batzuek, berriz, ez dute titularrik edo, baldin badute, hutsik egongo dira ikasturtean zehar, pertsona horrek ez duelako beteko. Esleipenean, azken lanpostu horiek eskaintzen dira.

Prozesua honetan behin betiko destinorik ez duten edo, baldin badute, beteko ez duten irakasle-kidegoetako karrerako funtzionarioek hartzen dute parte, baita lanpostua kendua izan zaien lan legepeko irakasle finkoek ere. Geroago, irakasleen kidegoetan sartzeko edo hasteko prozesuetako praktikaldia egin behar duten pertsonak edo irakasleen ordezkogaien zerrendetako kideek ere hartuko dute parte.

Agindu honekin, ikasturte-hasierako esleipena arautu nahi da, karrerako langile funtzionarioei eta lan legepeko irakasle finkoei dagokienez. Gainerako pertsonen parte-hartzea berariazko araudi baten bidez zehaztuko da.

Esleipena langileen arteko norgehiagoka-prozesu bat da; bertan nork bere aukerak balia ditzake. Bestalde, prozesu horrekin lortu nahi da, batetik, ikastetxeak egonkorrak izatea, eta, bestetik, irakasleak nor bere espezialitatearen arabera banatzea, kalitatezko hezkuntza-sistema lortzeko.

Orokorrean, pertsona bakoitzak prozesuan parte hartzen duen irakasle-kidegoko espezialitate propioetako lanpostuak eskura ditzake. Baina, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako lehen eta bigarren mailetako lanpostuei dagokienez, badago salbuespen bat: Bigarren Hezkuntzako irakasleen kidegoko espezialitateetakoak izan arren, behin betiko destinoa duten maisu-maistrei, edo behin betiko azken destinoa ezaugarri horietako lanpostuetan izan duten edo kendu zaien maisu-maistrei eskainiko zaizkie lehenbizi. Horrela, urriaren 29ko 1364/2010 Errege Dekretuaren lehen xedapen iragankorreko aurreikuspenak jasotzen dira.

Lanpostuak eskuratzeko, espezialitatea izateak lehentasuna du. Hala ere, zenbait kasutan irakasleen titulazioari dagozkion lanpostuak esleitzea salbuespen gisa gertatzen da.

Hizkuntza-eskakizunari dagokionez, antolakuntza hobetzearren eta dauden baliabideak optimizatzearen, lanpostuak banatzeko, parte-hartzaileek egiaztatzen duten hizkuntza-eskakizunaren arabera egitea gomendatzen da. Nolanahi ere, espezialitate jakin batzuen konfigurazioak eta ezaugarriek berezitasun batzuk sartzeko eskatzen dute, irizpide hori aplikatzearen ondorioak neurrizkoak izan daitezen.

Prozesuak hainbat fase ditu, kontuan izan behar diren lehentasunen arabera, hau da, parte-hartze taldeetan banatzea eta espezialitatea izatea, zerbitzua ematen duten ikastetxearekiko pertsonen duten harremana edo esleipen-eremuaren arabera definituak.

Parte-hartze eremuei dagokienez, erreferentziako ikastetxean hasten da parte-hartzaileak hautatzen, eta, gero, eremu zabalagoetara igarotzen da apurka-apurka; honela, lanpostua lehenengoan lortzen duenak ez du hurrengoetan parte hartu beharrik.

Beraz, erreferentziako ikastetxean esleitzea prozesuaren atal garrantzitsu bat da, izan ere, klaustro egonkorragoak lortzea eta behin betiko lan-ekipoak eratzea ahalbidetzen du. Horregatik, arauak egonkortasun-baldintzak ezartzen ditu eremu horretan hautatzeari uko egin nahi dietenentzat.

Taldeak antolatzeko, arloa arautzeko erabili izan diren eta talde horien guztien artean aplikatzekoak diren irizpideak sartu dira.

Bestalde, zehaztu behar da agindu honetan ezartzen den prozesuak aldaketa bat ekarriko duela orain arte pertsona interesdunek ezagututakoarekin alderatuz; izan ere, aurreko urteetan, ikasturte hasierako esleipen-prozesuari dagokion atal hau ekitaldi publiko batera deituz egiten zen, eta, hemendik aurrera, bide telematiko eta informatikoen bidez izapidetuko eta ebatziko da.

Hala ere, 2010-2011 ikasturtearen hasieran, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila gisa horretako bitartekoak erabiltzen hasi zen talde jakin batean lanpostuak esleitzeko.

2011-2012 ikasturtean, jarduteko era hori hautapen-prozesuetan hautatutako pertsonen eta hautagaien zerrendan daudenei zabaldu zitzairen, hezkuntzako maila guztietan. Gainera, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuaren 2012ko ekainaren 22ko Aginduak, karrerako irakasle funtzionarioei edo lan legepeko irakasle finkoei buruzkoak, aurreikusten zuen prozesuaren atal hori izapidetzeko, horrelako bitartekoak ezartzea apurka-apurka.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak ohartarazten du pertsona interesdunen kultura-aldaketa ekarriko duela honek guztiak, baina, aurreko ikasturteetako esperientziari jarraikiz, sistema batetik besterakoa era ordenatuan egingo da, eta ez du tresna berria ezagutzetik eratorritakoa bestelako zailtasunik izango. Horrela, eta aurretik jardun duen bezala, esleipenaren ezaugarriak zabaltzeko eta sortzen diren arazoak konpontzeko beraren esku dauden bitartekoak ahalik eta gehien erabiltzeko asmoa adierazten du.

Agindu hau Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko irakasle funtzionarioen lan-baldintzak arautzen dituen akordioaren 13. artikuluan xedatutakoari jarraituz eman da. Akordioa uztailaren 6ko 185/2010 Dekretuaren bidez onartu zen, eta Enplegatu Publikoaren Oinarriko Estatutuaren (apirilaren 12ko 7/2007 Legea) 37. artikuluan aurreikusitako negoziazioaren ondorio da. Artikulu horrek honela dio: «Ikasturte-hasierako esleipena, hezkuntza-maila guztietan, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuaren agindu bidez arautuko da, aurrez Plangintza Batzorde Teknikoan negoziatuta».

Kontuan hartu dira, gainera, Administrazio Publikoari buruzko otsailaren 21eko 21/2012 Dekretuan xedatutakoak (martxoaren 9ko EHAA).

Horren ondorioz, honako hau

XEDATZEN DUT:

I. KAPITULUA

XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua.– Xedea.

Agindu honen xedea Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren mendeko unibertsitateaz kanpoko ikastetxe publikoetan ikasturte hasierako esleipen-prozesua arautzea da, karrerako irakasle funtzionarioei eta lan-legepeko irakasle finkoei dagokienez, betiere behin betiko destinorik ez dutenean edo prozesuaren ikasturtean betetzen ez dutenean.

2. artikulua.– Prozesua irekitzea eta egutegia.

Agindu honetan araututako prozesua urtero irekiko da Langileria Kudeatzeko zuzendariaren ebazpen bidez, eta ekainaren bigarren hamabostaldian jarriko da jendaurrean, bai Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren web-orrian (www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net), bai lurralde-ordezkaritzetako iragarki-oholetan, eta bertan zehaztuko da prozesuaren egutegia.

3. artikulua.– Lanpostuak.

1.– Prozesu honetan, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren mendeko unibertsitateaz kanpoko ikastetxe publikoetako irakasle-lanpostuak esleituko dira, esleitzeko unean existitzen direnak, betetzeke daudenak edo titularrek edo eskubide onena dutenek beteko ez dituztenak, eta egoera horrek ikasturte osoa iraungo duela aurreikusten bada; bestalde, artikulua honen 6. atalean aipatzen den zerrendan egon beharko dira.

2.– Prozesu honetan barne hartutako lanpostuak zehazteko, dagokion ikasturterako lanpostu-zerrendak onartu gabe badaude prozesua garatzen den egunetan, onartutako azken lanpostu-zerrendak izango dira kontuan, ikasturte berrirako matrikulazioaren, eta taldeak konfiguratzeko eta lanpostu-zerrendak prestatzeko Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak urtero onartzen eta argitaratzen dituen irizpideak aplikatzearen ondorioz izan daitezkeen aldaketekin.

Bereziki, hauek izango dira kontuan:

a) Lanpostu bat eratzeko espezialitateak elkartu behar badira, koherentziako eta curriculum-antzekotasuneko irizpideak aplikatu beharko dira.

b) Zenbait ikasgai barne hartzen dituzten lanpostuak ikasgai nagusiaren arabera esleituko dira. Ikasgai nagusia ordu kopuru handiena duena izango da, ikasgaietakoren bat atzerriko hizkuntza bat ez bada behintzat; kasu horretan, horixe izango da ikasgai nagusia.

3.– Lanpostu ibiltariak eta bereziak baldintza horiek ez betetzen dituzten gainerako lanpostuak bezalaxe esleituko dira. Agindu honen 25. eta 26. artikuluetan aipatzen diren eskaera generikoetan zein nahitaezko eskaerak sortzean izango dira kontuan.

4.– Prozesu honetan, lanaldi murriztuko lanpostuak ez dira esleituko.

5.– Zenbait lanpostu ezaugarri bereziko lanpostu gisa kalifikatu ahal izango da berariaz, bere osaeraren edo berau burutzeko berezitasunak kontuan hartuz.

Lanpostu bereziak eskaera zehatz gisa eskatzen direnean baino ez dira kontuan izango, eta, ondorioz, ez dira kontuan izango eskaera generikoak garatzean eta nahitaezko eskaerak sortzean.

Dena den, III. eranskineko espezialitateetan aurreikusi gabeko lanpostuak, edo II. eranskineko d) atalean jaso ez den tipologiako ikastetxeetako lanpostuak esleitu behar badira, ezaugarri bereziak dituzten lanpostutzat joko dira Horien eskaera-kodeak eta ezaugarriak Langileria Kudeatzeko zuzendariaren ebazpen bidez argitaratuko dira, eta Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren web-orrian eta lurralde-ordezkaritzetako iragarki-oholetan jarriko dira jendaurrean.

6.– Prozesu honetako lanpostuak lehenago jarriko dira jendaurrean Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren web-orrian eta lurralde-ordezkaritzetako iragarki-oholetan, bere ezaugarriak jasoko dituen zerrenda baten bidez, ezaugarri bereziko lanpostuaren kalifikazioa barne hartzen duen, hala behar bada.

Argitaratzeko egunak prozesuak deitzen duen Langileria Kudeatzeko zuzendariaren ebazpenaren bidez ezarriko eta jakinaraziko dira.

Lanpostuak interesdunei jakinarazteko bestelako modu batzuk ere erabil daitezke.

4. artikulua.– Parte-hartzaileak.

1.– Prozesu honetan Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren mendeko karrerako irakasle funtzionarioek edo lan-legepeko langile finkoek hartuko dute parte, nahitaez, inguruabar hauetakoren bat gertatzen bada:

a) Behin betiko destinatorik gabe zerbitzua ematen egotea, edo behin betiko destinoa edozein arrazoiengatik ez betetzea, nahikoa ordu ez egotea barne. Atal honetan sartuko dira, besteak beste, destinoaren zain dauden pertsonak, eta ikastetxe publikoetan irakasle-zerbitzua ematen hasten direnak, dagokion ikasturte-hasieratik hasita.

b) Zerbitzu aktibora itzultzea eskatzea, dagokion ikasturte-hasieratik hasita.

2.– 7.2 artikuluan adierazitako esleipen-talde bakoitza definitzen duen egoeran daudenek dagozkien fase guztietan parte hartu beharko dute. Bestela, hezkuntza-administrazioak ofizioz esleitu die lanpostu bat, dagozkien fasean.

3.– Prozesu honetan ez dute parte hartuko espresuki lekualdatutako pertsonak, esleipenaren ikasturterako behin betiko destinoko lanpostuaren espezialitatean eta hizkuntza-eskakizunean nahikoa ordu badago, eta lanpostua bete beharko dute. Hala ere, ez da aurrekoa kontuan hartuko ordu horiek egoeraren arabera premien ondoriozkoak ez badira, hala nola egoeraren batengatik pertsona bat ikasturte baterako ordezkatzeari.

4.– Ikasturterako egindako plangintzaren arabera, ikastetxe jakin batean behin betiko destinoa duten langile guztientzat ordurik ez badago, esleipenean zer pertsonak parte hartuko duten zehazteko, lanpostu-zerrendetan aldaketak izateagatik erasandako irakasleak zehazteko prozesua arautzen duten arauak aplikatuko dira.

5. artikulua.– Lanpostuak esleitzeko baldintza orokorrak.

1.– Lanpostu bat esleitzen denean, parte-hartzaileak baldintza orokor hauek bete beharko ditu:

a) Lanpostuari dagokion irakasle-kidegokoa izatea.

Hala ere, Bigarren Hezkuntzako espezialitateetako lanpostuak, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako lehen eta bigarren mailetan soilik daudenean, maisu-maistren kidegoko pertsonak esleitu ahal izango zaizkie, ezaugarri horiek dituzten behin betiko lanpostuetan destinoa duten edo lanpostu horietan destinoa kendu zaien pertsonak.

b) Lanpostuari dagokion espezialitatearen titular izatea, edo habilitazioa izatea.

Espezialitate bat baino gehiagotatik lor daitezkeen lanpostuak espezialitate horietako edozein dutenei esleituko zaizkie. Honi dagokionez, «Kultura klasikoa», «Curriculum aniztasuna», «Hizkuntza indartzeko irakasleak», Helduen Hezkuntzako komunikazioa, gizarte ezagutza eta ezagutza zientifiko-teknologikoa arloetako lanpostuak, eta zereginak ikasteko gelak, esleipena egiterako unean indarrean den araudiak ezartzen dituen espezialitateetako titularrei esleitu ahal izango zaizkie.

Emango den ikasgaiari dagokion espezialitatea edo habilitazioa dutenei esleituko zaizkie maisu-maistren lanpostu-zerrendetako Helduen Hezkuntzako lanpostuak. Horretarako, HHE Irakaskuntzak Lehen Hezkuntzari dagokiola ulertuko da.

2007tik aurrera deitutako hautaketa-prozesuetako praktikaldia gainditu eta lekualdatze-lehiaketan behin betiko destinorik lortu ez duten pertsoneri, oposizioan gainditu zuten espezialitateko lanpostu bat esleituko zaie; beraz, espezialitate askotatik hel daitezkeen postuez edo HHE postuez horretarako xedatutakoa ez zaie aplikatuko.

Oro har xedatutakoaz gain, titulu akademikoak izateak ahalbidetuko du lanpostu bat parte-hartzaile bati izendatzea, esleipen-eremuan bere espezialitateko inongo lanposturik ez dagoenean.

Titulu akademiko eta espezialitateen arteko korrespondentzia Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitatez kanpoko ikastetxe publikoetako irakasleak ordezkatzeko izangaiak kudeatzeko araudian orokorrean 1 kidesunarekin ezarritakoa izango da.

Azkenik, lurralde historikoan ez bada bere espezialitateko edo habilitazioko lanposturik, maisu-maistren kidegoan parte hartzen dutenek espezialitate hauetako lanpostuak hautatuko dituzte: HHE Hasierako Irakaskuntza (HHH), Lehen Hezkuntza (LH).

c) Lanpostuak eskatutako euskarazko hizkuntza-eskakizuna egiaztatzea.

2.– Ikasgai edo espezialitate bat atzerriko hizkuntzan ematea eskatzen duen lanpostu bat betetzeko, baldintza orokorrak betetzeaz gain, atzerriko hizkuntzan eskolak emateko ezarritako espezialitate edo titulazio-baldintzak egiaztatu beharko dira.

3.– Atzerriko bi hizkuntza ematea eskatzen duen lanpostu bat betetzeko, baldintza orokorrak betetzeaz gain, gutxienez hizkuntzen erreferentziako esparru komun europarraren B2 maila gainditu izana egiaztatu beharko da, ordu kopuru txikiena duen hizkuntzari dagokionez.

6. artikulua.– Hizkuntza-eskakizunari buruzko berariazko xedapenak

2. hizkuntza-eskakizuna egiaztatu duten pertsonen 2. hizkuntza-eskakizuneko eta derrigorrezkotasun-data beteko lanpostuak eskuratuko dituzte. Hala ere, 1. hizkuntza-eskakizuneko lanpostuetara sartu ahal izango da kasu hauetan:

a) Erreferentziako ikastetxean, horrelako lanposturik ez badago, b), c) eta d) taldeetako pertsonak.

b) Lurralde historikoan ezaugarri horietako lanposturik ez badago.

c) Lanbide heziketako espezialitateetan 2. hizkuntza-eskakizuna amaitua duten oso lanpostu gutxi badago lurralde historikoan, 2. hizkuntza-eskakizuna egiaztatua dutenekin alderatuz, horiek espezialitate horretako 1. hizkuntza-eskakizuneko lanpostuetara sartu ahal izango dira Langileria Kudeatzeko zuzendaria ezarriko du gisa horretako desoreka zein espezialitateetan gertatzen den, baita aukera egin dezaketen pertsona kopurua ere; horretarako aintzat hartuko da aipatu

espezialitateko eta lurralde horretan dauden 1. hizkuntza-eskakizuneko lanpostu-kopuruaren eta 2. hizkuntza-eskakizuna egiaztatu gabe duten karrerako funtzionarioen kopuruaren arteko aldea. Gai horiek zehazteko ebazpena Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren web-orrian eta lurralde-ordezkaritzetako iragarki-oholetan argitaratuz jakinaraziko da.

II. KAPITULUA

ESLEIPEN-PROZESUAREN GARAPENA

1. ATALA

XEDAPEN OROKORRAK

7. artikulua.– Prozesuaren egitura eta esleipen taldeak.

1.– Ikasturte-hasierako esleipen-prozesua fase-segida ordenatu bat da; faseok esleipen-taldeen eta garatzen diren esparruaren arabera definituak dira.

2.– Parte-hartzaileak esleipen-talde hauetan bilduko dira:

a) Haien lanpostua eraldatzeagatik behin betiko destinoa hizkuntza-eskakizuna betea duten lanpostuetan izan eta egiaztatu ez duten pertsonak.

b) Esleipen-prozesua burutzen den ikasturterako nahikoa ordu ez duen behin betiko destinoko lanpostua duten pertsonak.

c) Lanpostu-zerrendetan aldaketek erasandako pertsonak zehazteko prozesuetan espresuki lekualdatutzat jo diren pertsonak.

d) Lanpostu-zerrendetan aldaketek erasandako pertsonak zehazteko prozesuetan behin betiko destinoa espresuki kendu zaien pertsonak.

e) Epaia betetzeagatik behin betiko destinoa galdu duten pertsonak.

f) Lanpostu huts bat betetzeko zerbitzu-eginkizun bat eman zaien pertsonak.

g) Destinoaren zain dauden, edo behin-behineko destinoa duten beste pertsona batzuk.

2. ATALA

ESLEIPEN-EREMUAK

8. artikulua.– Esleipena ebaztea.

1.– Lanpostuak esparru hauetan esleituko dira, parte-hartzaileek talde bakoitzean duten parte-hartzearen arabera:

a) erreferentziako ikastetxea, talde guztientzat, arrazoiren bat tarteko erreferentziako ikastetxerik ez duten horientzat izan ezik.

b) herria, g) taldeko pertsonentzat, kanpoko lanpostuetan atxikita egoteagatik behin betiko destinoa galdu dutenak eta euskal hezkuntza-administrazioko kudeaketa-esparrura itzultzen diren edo itzuli diren.

c) eskola-barrutia, a), b), c) eta d) taldeentzat.

d) lurralde historikoa, talde guztientzat.

2.– Esparruren batean lanpostua eskuratu duten pertsonak ez dute hurrengo esparruan edo esparruetan parte hartuko, eta, beraz, parte hartu ez duten esparruei dagokienez egin ahal izan diren eskabideak ez dira kontuan hartuko. Aitzitik, esparru batean lanpostua lortzen ez dutenek gainontzeko esparruetan parte hartzen jarraituko dute, egin dituzten eskabideen arabera.

9. artikulua.– Erreferentziako ikastetxea.

Parte-hartzaile bakoitzaren erreferentziako ikastetxea prozesuari dagokion aurreko ikasturteko otsailaren lehen lanegunetik ekainaren azken lanegunera zerbitzua eman zuen ikastetxea da, salbuespen hauekin:

1.– a), b), c) eta d) taldeak:

Talde horietako pertsonak, aurreko ikasturtean euren behin betiko destinoko ikastetxeaz besteko batean zerbitzua eskaini zutenek edo kenduaren izaera lortu zutenek, eskatu ahal izango dute erreferentziako ikastetxetzat behin betiko destinoko ikastetxea edo izaera hori lortu zutenekoa hartzea, hurrenez hurren.

2.– Ikastetxeak aldatzea:

Aurreko ikasturtean fusionatu diren ikastetxeetan zerbitzua eman duten pertsonak fusioaren ondoriozko ikastetxe berrian izango dute erreferentzia.

Ikastetxeak zatitu egin badira, ondoriozko ikastetxe guztietan gordeko dute erreferentzia.

3.– Behin betiko lanposturik gabe eta egoera berezietan dauden pertsonak:

a) Iralen egon diren pertsonak programa horretara joan zireneko ikastetxean izango dute erreferentzia.

b) Adin txikiko seme edo alaba edo ahaideak zaintzeagatik eszedentziatik lanera itzultzen diren pertsonak egoera horretara joan zireneko ikastetxean izango dute erreferentzia, salbuespen batekin: behin betiko lanpostua izatekotan, lanpostu-erreserbagatik zegokien epea baino luzeagoa ez igarotzea.

c) Zerbitzu berezietatik lanera itzultzen diren pertsonak, edo liberazio sindikala amaitzeagatik ikastetxe publikoetan irakasle-lanpostuetara zerbitzua benetan ematera itzultzen direnek egoera horietara joan zireneko ikastetxean izango dute erreferentzia.

4.– Zerbitzu eginkizunetan daudenak:

Esleipen-prozesuan aipatu ikasturterako zerbitzu eginkizun bat esleitu zaienen erreferentziako ikastetxea, aurreko ikasturtean egoera horretan egon ez badira, zerbitzu-eginkizunetako lanpostua bete dutena izango da, behin betiko destinoa ikastetxe horretan badute soilik.

Aurreko ikasturtean zerbitzu eginkizunetan izan direnen erreferentziako ikastetxea zerbitzu-eginkizunetako lanpostua bete dutena izango da, behin betiko destinoa ikastetxe horretan badute edo esleipen-prozesu honetan aipatu ikasturtean zerbitzu eginkizunetan segitzen badute soilik.

10. artikulua.– Herria.

Esparru horretan parte hartzen duen pertsona bakoitzaren herria behin betiko azken destinoa izan zuen ikastetxea dagoenekoa izango da.

11. artikulua.– Eskola-barrutia.

Esparru horretan parte hartzen duen pertsona bakoitzaren eskola-barrutia erreferentziako ikastetxea dagoenekoa izango da.

12. artikulua.– Lurralde historikoa.

1.– Esparru horretan parte hartzen duen pertsona bakoitzaren lurralde historikoa erreferentziako ikastetxea dagoenekoa izango da.

2.– Erreferentziako ikastetxerik ez badute, lurralde historikoa honela zehaztuko da:

a) Prozesuan ikastetxe publikoetan irakaskuntzako lanpostuetan zerbitzua ematera itzultzen diren pertsoek esparru horretan zerbitzua emateari utzi ziotenean zeuden lurralde historikoan hartuko dute n parte.

b) Itzultzen diren pertsonen itzultzea emateko ebazpenean ageri den lurralde historikoan hartuko dute parte.

c) Zerbitzu eginkizuna lortzen dutenek edo egoera horri amaiera eman diotenen aurreko ikasturtean zerbitzua bete duten lurralde historikoan parte hartuko dute.

13. artikulua.– Esleipenaren esparruko uko egiteak.

1.– Erreferentziako ikastetxean hautatzeari uko egin ahal izango diete gutxienez azken bi ikasturteak haien igaro dituztenek.

Herrian edo barrutian hautatzeari uko egin ahal izango diete esparru horietan parte hartzeko eskubidea dutenek.

2.– Esleipen-esparru bati uko egiten dionak bere taldeari dagokion hurrengo esparruan parte hartuko du.

14. artikulua.– Lurralde historikoa aldatzeko eskaera.

Edozein parte-hartzailek eska dezake lanpostuak haien erreferentziako ikastetxearena ez den lurralde historikoaren esparru geografikoan hautatzea.

Horretarako, aurreko artikuluen arabera dagozkion esleipen-esparruetan parte hartzeari uko egin beharko dio, erreferentziako ikastetxea barne, eta horretarako eskatutako baldintzak bete beharko ditu.

Langileria Kudeatzeko zuzendariak zehaztuko eta jakinaraziko du eskaera hori egiteko epea eta era, eta eskaerok ebazteko, kontuan izango da espezialitateko lanposturik badagoen, eta joan nahi duen lurraldean zenbat pertsona dauden.

3. ATALA

ESLEIPEN-FASEAK

15. artikulua.– Maisu-maistren kidegorako esleipen-faseak.

Maisu-maistren kidegorako esleipena segidako fase ordenatu hauen bidez egingo da:

1.– a) taldea, behin betiko destinoa duten ikastetxean.

2.– b) taldea, behin betiko destinoa duten ikastetxean.

- 3.– d) taldea, behin betiko azken destinoa izan zuten ikastetxean.
- 4.– a), b) eta d) taldeak, elkarrekin, erreferentziako ikastetxean, behin betiko destinoa ez den beste bat bada.
- 5.– e) taldea, erreferentziako ikastetxean.
- 6.– a), b) eta d) taldeak, denak batera, erreferentziako ikastetxearen barrutian.
- 7.– a), b), d) eta e) taldeak, denak batera, erreferentziako ikastetxea dagoen lurralde historikoan.
- 8.– f) taldea, erreferentziako ikastetxean.
- 9.– g) taldea, erreferentziako ikastetxean.
- 10.– f) taldea, erreferentziako ikastetxea dagoen lurralde historikoan.
- 11.– Kanpoko lanpostuetako atxikipenetatik behin-behineko destinoarekin datozen pertsonak behin betiko azken destinoa izan zuten herrian.
- 12.– g) taldea, erreferentziako ikastetxea dagoen lurralde historikoan.
16. artikulua.– Gainerako kidegoetarako esleipen-faseak.
- Gainerako kidegoetarako esleipena ondorengo fase-zerrenda ordenatu eta jarraia izango da:
- 1.– a) taldea, behin betiko destinoa duten ikastetxean, duten espezialitateko lanpostuetarako.
- 2.– b) taldea, behin betiko destinoa duten ikastetxean, duten espezialitateko lanpostuetarako.
- 3.– c) taldea, behin betiko destinoa duten ikastetxean, duten espezialitateko lanpostuetarako.
- 4.– a) taldea, behin betiko destinoa duten ikastetxean, titulazio akademikoari dagozkion lanpostuetarako.
- 5.– b) taldea, behin betiko destinoa duten ikastetxean, titulazio akademikoari dagozkion lanpostuetarako.
- 6.– c) taldea, behin betiko destinoa duten ikastetxean, titulazio akademikoari dagozkion lanpostuetarako.
- 7.– a), b), c) eta d) taldeak, denak batera, erreferentziako ikastetxean, baldin eta behin betiko destinoa duten edo izan zuten ikastetxea ez bada, duten espezialitateko lanpostuetarako.
- 8.– a), b), c) eta d) taldeak, denak batera, erreferentziako ikastetxean, baldin eta behin betiko destinoa duten edo izan zuten ikastetxea ez bada, titulazio akademikoari dagozkion lanpostuetarako.
- 9.– e) taldea, erreferentziako ikastetxean, duten espezialitateko lanpostuetarako.
- 10.– e) taldea, erreferentziako ikastetxean, titulazio akademikoari dagozkien lanpostuetarako.
- 11.– a), b), c) eta d) taldeak, denak batera, erreferentziako ikastetxea dagoen barrutian, duten espezialitateko lanpostuetarako.
- 12.– a), b), c) eta d) taldeak, denak batera, erreferentziako ikastetxea dagoen barrutian, titulazio akademikoari dagozkion lanpostuetarako.
- 13.– a), b), c) eta d) taldeak, denak batera, erreferentziako ikastetxea dagoen lurralde historikoan, duten espezialitateko lanpostuetarako.

14.– a), b), c) eta d) taldeak, denak batera, erreferentziako ikastetxea dagoen lurralde historikoan, titulazio akademikoari dagozkion lanpostuetarako.

15.– f) taldea, erreferentziako ikastetxean, duten espezialitateko lanpostuetarako.

16.– f) taldea, erreferentziako ikastetxean, titulazio akademikoari dagozkien lanpostuetarako.

17.– g) taldea, erreferentziako ikastetxean, duten espezialitateko lanpostuetarako.

18.– g) taldea, erreferentziako ikastetxean, titulazio akademikoari dagozkien lanpostuetarako.

19.– f) taldea, erreferentziako ikastetxea dagoen lurralde historikoan, duten espezialitateko lanpostuetarako.

20.– f) taldea, erreferentziako ikastetxea dagoen lurralde historikoan, titulazio akademikoari dagozkion lanpostuetarako.

21.– Destinoaren zain dauden eta kanpoko lanpostuetako atxikipenetatik datozen pertsonak hautatzea, duten espezialitateko lanpostuetarako, behin betiko azken destinoa izan zuten herrian.

22.– Destinoaren zain dauden eta kanpoko lanpostuetako atxikipenetatik datozen pertsonak hautatzea, titulazio akademikoari dagozkion lanpostuetarako, behin betiko azken destinoa izan zuten herrian.

23.– g) taldea, erreferentziako ikastetxea dagoen lurralde historikoan, duten espezialitateko lanpostuetarako.

24.– g) taldea, erreferentziako ikastetxea dagoen lurralde historikoan, titulazio akademikoari dagozkion lanpostuetarako.

4. ATALA

LEHENTASUNA TALDE BAKOITZAREN BARRUAN

17. artikulua.– Maisu-maistren kidegoan, talde bakoitzaren barruan ordenatzea.

1.– Parte-hartzaileak erreferentziako ikastetxean etengabeko antzinasun handiena lehenetsita ordenatuko dira talde bakoitzaren barruan, salbuespen hauekin: behin betiko destinoa erreferentziako ikastetxean izatea, edo bertan kentzea behin betiko azken destinoa. Kasu horietan, ikastetxe horretan behin betiko izendapenez etengabeko antzinasun handiena lehenetsita ordenatuko dira, eta kenduaren izaeran betetako zerbitzu-denbora gehituko zaio horri, egoera horretan dauden pertsonen kasuan.

Berdinketa badago, maisu-maistren kidegoko karrerako funtzionario gisa emandako zerbitzu-denbora luzeena izango da kontuan.

2.– Gainerako esparruetan, parte-hartzaileak maisu-maistren kidegoko karrerako funtzionario gisa emandako zerbitzu-denbora luzeena lehenetsita ordenatuko dira talde bakoitzaren barruan.

Berdinketa badago, maisu-maistren kidegoko irakaskuntza-postuetan emandako zerbitzu-denbora luzeena izango da kontuan, eta berdinketak jarraituz gero, unibertsitateaz kanpoko irakaskuntza-postu publikoetan emandako zerbitzu-denbora luzeena.

3.– Ikastoletako edo ikastetxe publikatuetako pertsonak parte hartzen badute, haiei buruzko berezitasun hauek hartuko dira kontuan:

a) Antzintasuna ikastetxean, behin betiko izendapenez: apirilaren 16ko 81/1996 Dekretuaren 39. artikuluan xedatua aplikatuko da.

b) Maisu-maistren kidegoko karrerako funtzionario gisa emandako zerbitzu-denbora: Ikastola, ikastetxe publiko edo publikatuetan lan-kontratu mugagabearekin eman duten zerbitzu-denbora zenbatuko zaie.

c) Azken irizpide hori aplikatzean berdinketa badago, pertsona erasanak maisu-maistren kidegoko irakaskuntza-postuetan, ikastetxe publiko edo publikatuetan, emandako zerbitzu-denbora luzeenaren arabera ordenatuko dira.

18. artikulua.– Gainerako kidegoetan, talde bakoitzaren barruan ordenatzea.

1.– Erreferentzia-esparruan, parte-hartzaileak irizpide hauen arabera ordenatuko dira talde bakoitzaren barruan:

a) Katedradunen kidegoetako pertsonak, antzinako katedradun numerarioen, edo irakasle numerarioen eta irakaskuntza bateratuetaiko psikologoaren kidegoetarako berariazko lekualdatze-lehiaketetan lortutako lanpostuan oraindik behin betiko destinoa badute, lehentasuna izango dute aukera hori duten gainerako pertsonetik. Bat baino gehiago badaude, b) eta c) hizkietan adierazitako irizpideak aplikatuko dira.

b) Gainerako langileentzat, erreferentziako ikastetxean parte hartzen duen kidegoan karrerako funtzionario gisa emandako etengabeko zerbitzu-denbora gehi parte hartzen duen kidegoan karrerako funtzionario gisa emandako zerbitzu-denbora izango da eskubiderik hoberena.

c) Berdinketa badago, erreferentziako ikastetxean parte hartzen duen kidegoan karrerako funtzionario gisa emandako etengabeko zerbitzu-denbora luzeena izango da kontuan. Berdinketa badago, parte hartzen duen kidegoan dagozkion lanpostuetan, ikastetxe publiko edo publikatuetan, emandako zerbitzu-denbora luzeena izango da kontuan.

2.– Gainerako esparruetan, parte-hartzaileak parte hartzen duten kidegoko karrerako funtzionario gisa emandako zerbitzu-denbora luzeena lehenetsita ordenatuko dira talde bakoitzaren barruan.

Berdinketa badago, parte hartzen duten kidegoko irakaskuntza-postuetan emandako zerbitzu-denbora luzeena izango da kontuan, eta berdinketak jarraituz gero, unibertsitateaz kanpoko irakaskuntza-postu publikoetan emandako zerbitzu-denbora luzeena.

III. KAPITULUA

NAHITAEZKO ESKABIDEAK ETA ESKARIAK

19. artikulua.– Eskabideak.

1.– Prozesuan, Irakaslegunean dagoen eskabide elektronikoa betez parte hartuko da; <http://www.irakasle.net> helbidetik sartzeko da. Parte-hartzaileak irakasleen posta elektronikoaren erabiltzailea eta pasahitza erabiliz sartzeko dira Irakaslegunera ([irakasle.net](http://www.irakasle.net)), edo, halakorik ezean, NAN-zenbakia eta gune horretara sartzeko pasahitza erabiliz. Sartzeko pasahitza ahaztuz gero, aipatu helbidean hori berreskuratzeko bidea aurki daiteke.

Aplikazioan lehen aldiz sartzeko, eskabideari alta emango zaio, eta parte-hartzaile bakoitzak haren nortasun-datuak eta prozesuan parte hartzeko datuak kontsulta ditzake.

2.– Langileriaren Kudeaketako zuzendariak ezarriko ditu eskabide-epeak deialdiaren ebazpenean. Era berean, prozesuaren fase bakoitzean eskabidea egiteko epeak egun horietan bertan batera irekitzea erabaki dezake.

3.– Eskabideak sartzeko puntuak gaituko dira, berariaz xede horretarako egongo diren ordenagailuen bidez. Ordenagailuak non dauden ebazpen berean ezarriko da.

20. artikulua.– Nahitaezko eskabideak.

Prozesuan nahitaez parte hartu behar duen pertsona batek eskabiderik aurkezten ez badu, ofizioz sortuko zaio nahitaezko eskabide bat.

21. artikulua.– Lanpostuak eskatzeko erak.

1.– Eskabidean, interesdunak parte hartu ahal duen esleipen-esparru bakoitzeko atal bat dago.

Erreferentziako ikastetxeari dagokion atalak eskabidea egiteko 15 lerro ditu; herriari dagokionak, 30; barrutiari dagokionak, 150, eta lurralde historikoari dagokionak, 300.

1. eranskinean jasotzen da eskabide-lerroaren eredia. Lerro horietako bakoitzean, zein lanpostutarako aukera izan nahi den idatziko da, bi era hauetako bati jarraikiz idatzi ere

a) Eskaera zehatza, argitaratutako zerrendan lanpostuak zer ordena-zenbaki duen adierazten bada. Lanpostu bakarra da.

b) Eskaera generikoa, lanpostuen ezaugarri definitzaileei buruzko eremu bat edo batzuk betetzen badira (lurralde historikoa, barrutia, udalerrria, ikastetxea, espezialitatea, hizkuntza-eskakizuna, derrigorrezkotasuna, ibiltarritza, berezia). Eskaera hauen bidez, erabilitako eremuari edo eremuei dagozkien lanpostu guztiak eskatzen dira, eskatzaileak horiek eskuratzeko baldintzak betetzen baditu.

2.– Lerro bakoitzaren hasieran agertzen den eskaera-zenbakiak zehazten du lerro horietako bakoitzak aipatzen duen lanpostuaren edo lanpostuak zer ordenatan hartuko diren kontuan.

22. artikulua.– Uko egiteko aukerak.

Esleipen-esparruei uko egiteko aukerak eskabide elektronikoan berean egin beharko dira, horretarako berariaz ezarritako laukitxoetan.

23. artikulua.– Eskabideak aldatzea eta ixtea.

1.– Eskabidearen alta eman ondoren, irekita egongo da eta edozein unetan aldatu ahal izango da, aurkezteko epea zabalik den artean. Sartutako datuak zirriborro-formatuan inprima daitezke.

2.– Eskabidea pertsonak berak hala nahita itxiko da, eskabidearen epearen barruan, edo automatikoki, epea amaitutakoan. Horrela, ordura arte grabatu dena hartuko da kontuan.

3.– Eskabidea itxi ondoren, ezingo da inolako aldaketarik egin, eta parte-hartzaile bakoitzak inprimaki bat eskuratu ahal izango du erregistratutako aukera eta eskaerekin.

24. artikulua.– Baliozkotzeak.

Eskabideak aurkezteko epea amaitu ondoren, sartutako datuak egiaztatuko ditu sistemak, eta, hala badagokio, parte-hartzaileek lanpostuak lortzeko baldintzaren bat betetzen ez badute, eskaera horiek ez ditu onartuko.

Elementu inkoherenteak dituzten eskaerak, edo deitu ez diren lanpostuei buruzkoak ere ez dira onartuko.

Behin-behineko ebazpena argitaratzen den unetik aurrera, parte hartzeko benetako baldintzak jasotzen dituen inprimaki bat eskuratu ahal izango da, hots, zer eskaera eta aukera onartu diren eta zein baztertu diren. Eskabidea ezingo da aldatu eskaerak baliogabetu izanaren ondorioz.

25. artikulua.– Eskaera generikoak garatzea.

1.– Eskaera generikoak modu informatikoan garatuko dira barne hartzen duten lanpostu multzoan, eta, hortaz, horiek guztiak hartuko ditu eskabideak.

2.– Garapen horrek kontuan izan behar ditu parte-hartzaileak prozesuan parte hartzeko dituen baldintza eta aukera guztiak, zer lanpostu eskura ditzakeen zehazteko. Titulu akademiko bat izate hutsaren ondoriozko espezialitateak ez dira aintzat hartuko.

3.– Irizpide horiek kontuan izanda, lanpostuaren ordena-zenbakia ez den zutabe bati dagokion laukitxoak betetzeak esan nahi du horren eskuinaldeko zutabe guztiek aipatzen dituzten edozein aukera betetzen duten lanpostuak eskatzea, praktikaldirako ezin hauta daitezkeen lanpostuak edo ezaugarri berezietakoak izan ezik. Zutabe bat baino gehiagotako laukitxoak betetzen badira, erabilitako zutabeetan adierazitakoak ez diren aukerak ez dira kontuan izango.

4.– Eskaera generiko batean sartzen diren lanpostuak, honela ordenatuko dira:

- a) II. eranskinean ezarritako lurralde historikoa-barrutia-udalerrria-ikastetxea ordenaren arabera.
- b) ikastetxe bakoitzaren barruan, III. eranskineko espezialitateen ordenaren arabera.
- c) espezialitate bakoitzean, 2. hizkuntza-eskakizuneko lanpostuak 1. hizkuntza-eskakizunekoak baino lehen.
- d) hizkuntza-eskakizun bakoitzean, derrigorrezkotasun beteak atzeratuak baino lehen.
- e) derrigorrezkotasun bakoitzean, ez-ibiltariak ibiltariak baino lehen esleituko dira.
- g) azkenik, lanpostu ez-bereziak bereziak baino lehen.

5. Eskaera-lerro bat garatu ondorengo lanpostuak deskribatutako irizpideen arabera ordenatuko dira, eta lanpostu guztiak hurrengo eskaera-lerroari dagokion lanpostuaren edo lanpostuen aurreko ordena-zenbakian jarriko dira.

26. artikulua.– Nahitaezko eskaerak sortzea.

1.– Prozesuan nahitaez parte hartu behar duen pertsona batek 5. artikulua lanpostua lortzeko aipatzen dituen baldintzak betetzen dituzten eskaera guztiak agortu ez baditu esleipen-esparru bakoitzean, sistema informatikoak gehienezko eskaera-mugaraino osatuko du eskabidea. Titulu akademiko bat izate hutsaren ondoriozko espezialitateak ez dira aintzat hartuko.

2.– Horretarako, eskaera generikoen garapenerako finkatutako irizpide berberak jarraituko dira.

3.– Sorrera honen ondoriozko lanpostuak deskribatutako irizpideen arabera ordenatuko dira, eta lanpostu guztiak hurrengo eskaera-lerroari dagokion lanpostuaren edo lanpostuen aurreko ordena-zenbakian jarriko dira.

27. artikulua.– Datu pertsonalen tratamendua.

Parte-hartzaileen datu pertsonalak agindu honetan araututako prozesua kudeatzeko bakar-bakarrik erabiliko dira, eta, horretarako, datu pertsonalen fitxategi automatizatu batean sartuko dira. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko Langileriaren Kudeaketa zuzendaria da fitxategi honen arduraduna, eta beraren aurrean atzitzeko, aldatzeko, ezabatzeko eta aurka egiteko eskubideak erabili ahal izango dira (Donostia 1, 01010 Vitoria-Gasteiz).

Parte-hartzaileek onartzen dute izaera pertsonaleko norberaren datuak agindu honetan zehaztutako eran eta helbururako tratatuak izan daitezen, baita Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren web-orrian, irakaslegunean eta Hezkuntzako lurralde-ordezkaritzetako iragarki-oholetan argitaratzea ere, baina prozesua honi dagozkion izapideei dagokienez soilik betiere. Halaber, baimena ematen diote Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari haren artxiboetan beraien buruzko bestelako informazioa ere erabiltzeko, baldin eta prozesurako aproposa bada.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak izapidetze osoan zehar zainduko du Izaera Pertsonaleko Datuak Babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan eta Izaera Pertsonaleko Datuen Fitxategien eta Datuak Babesteko Euskal Agentzia sortzeko otsailaren 25eko 2/2004 Legean xedatutakoa.

IV. KAPITULUA

ESLEITZEA, ERAGINAK ETA IZENDAPENAK

28. artikulua.– Esleipena ebaztea.

Prozesua fase guztiak amaitutakoan ebatzi eta erabakiko da, Langileria Kudeatzeko zuzendariaren ebazpen bidez, eta lurralde-ordezkaritzetako iragarki-tauletan jarriko dira jendaurrean.

29. artikulua.– Eraginak eta izendapenak.

1.– Ezin izango zaio uko egin esleitutako lanpostua betetzeari.

2.– Behin betiko destinoa duten pertsonak zerbitzu-eginkizunetarako izendatuko dira; gainerakoak, berriz, behin-behineko destinorako, zer egoera duten ikusitakoan.

3.– Esleitutako lanposturako izendapenak ikasturtea hasten den urteko irailaren 1ean izango du eragina, eta hurrengo urteko abuztuaren 31n amaituko da, titularra duten lanpostuetan izan ezik, hura egun hori baino lehenago itzultzen bada; kasu horretan, izendapena lanera itzultzeko bezperan amaituko da.

XEDAPEN GEHIGARRIAK

Lehenengoa.– Lan-legepeko irakasle finkoak.

1.– Agindu hau aplikatzeko, irakasle funtzionarioen kidegoak aipatzean, funtzionario-kidegoari esleitutako antzeko funtzioak betetzen dituzten langile finkoak ere sartzan dira, kontrakorik aurreikusten ez bada.

2.– Haur Hezkuntzan edo Lehen Hezkuntzan eskolak ematen dituzten lan-legepeko irakasle finkoen kasuan, lanpostu-zerrenda onartu eta argitaratzeagatik behin betiko esleituta zeukan lanpostua kendu bada, pertsona erasanak agindu honetan araututako esleipen-prozesuan parte hartuko du, 7.2 artikulua d) letran aipatutako pertsona kenduen taldean.

Agindu honetan araututako prozesuan esleitzen zaion lanpostua behin betiko kokapenekoetzat joko da, baldin eta lanpostu-zerrendan argitaratu bada, titularrik ez badu eta pertsona erasanak espezialitatearen eta euskarazko hizkuntza-eskakizunaren baldintzak betetzen baditu.

3.– Beste hezkuntza-maila batzuetan eskolak ematen dituzten lan-legepeko irakasle finkoen kasuan, lanpostu-zerrenda onartu eta argitaratzeagatik behin betiko esleituta zeukan lanpostua kendu bada, pertsona erasana beste ikastetxe batera lekualdatuko da eta beste lanpostu bat esleituko zaio, behin betiko bete dezan.

Lekualdatzea agindu honetan araututako esleipen-prozesuaren aurretik egingo da, eta egoera aztertu ondoren, hutsik dauden lanpostu guztiak kontuan izango dira, pertsona erasanari ahalik eta kalte gutxien eragiteko. Lekualdatzearen xede den lanpostua desagertutzat joko da.

Bigarrena.– Irakaskuntza Ertainetako Institutu Teknikoetako irakasle-kidegoa eta «Jarduerak» espezialitateko langileak.

Irakaskuntza Ertainetako Institutu Teknikoetako irakasle-kidegoaren eta «Jarduerak» espezialitateko langileen kasuan, lanpostu-zerrenda onartu eta argitaratzeagatik behin betiko esleituta zeukan lanpostua kendu bada, pertsona erasana beste ikastetxe batera lekualdatuko da eta beste lanpostu bat esleituko zaio, behin betiko bete dezan.

Lekualdatzea agindu honetan araututako esleipen-prozesuaren aurretik egingo da, eta egoera aztertu ondoren, hutsik dauden lanpostu guztiak kontuan izango dira, lehen xedapen gehigarrian xedatutakoa aplikatuta erabili direnak izan ezik, pertsona erasanari ahalik eta kalte gutxien eragiteko. Lekualdatzearen xede den lanpostua desagertutzat joko da.

Hirugarrena.– Beste lurralde historiko batean esleitzea.

Lanpostu bat ezin bada eskatzen den lurralde historikoan esleitu, jarduera-baldintzak bete arren horrek eragiten dion pertsonari lanpostu bat izendatuko dio hezkuntza administrazioak, Euskal Autonomia Erkidegoan, eta, inguruabarrak kontuan izanik, pertsona horrentzat ahalik eta kalte gutxien eragiteko gisan.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Indargabeturik geratzen da Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuaren 2011ko ekainaren 22ko Agindua, ikasturte hasierako esleipen-prozesua arautzeko dena, behin betiko destinatorik ez duten edo betetzen ez duten karrerako irakasle funtzionarioei edo lan legepeko irakasle finkoei dagokienez.

AZKEN XEDAPENA

Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunean berean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2012ko ekainaren 6a.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburua,
MARÍA ISABEL CELAÁ DIÉGUEZ.

I. ERANSKINA

ESKABIDE-EREDUA

A atala: Erreferentziako ikastetxea:

Esk.-zk.	Postuaren ordena-zk.	Esp. kodea	HE	Derr. ibil.	3erez.
A 1	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>
...					
A 15	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>

B atala: Herria:

Esk.-zk.	Postuaren ordena-zk.	Ikast. kodea	Esp. kodea	HE	Derr. ibil.	3erez.
B 1	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>
...						
B 30	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>

C atala: Barrutia:

Esk.-zk.	Postuaren ordena-zk.	Udal.:	Ikast. kodea	Esp. kodea	HE	Derr. ibil.	erez.
C 1	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>
...							
C150	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>

D atala: Lurralde historikoa:

Esk.-zk.	Postuaren ordena-zk.	Barr.	Udal.:	Ikast. kodea	Esp. kodea	HE	Derr. ibil.	erez.
D 1	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>
...								
D300	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>

Esk.-zk.: eskabide-oriaren ordena-zenbakia
 Postuaren ordena-zk.: argitalpen-zerrendan lanpostua identifikatzeko zenbakia

LH: lurralde historikoa

Barr.: barrutia

Udal.: udalerria

Ikast. kodea: ikastetxea identifikatzeko kodea

Esp. kodea: espezialitatea identifikatzeko kodea, III. eranskinaren arabera

HE: hizkuntza-eskakizuna

Derr.: derrigorrezotasun-data

Ibil.: ibilbidea ezaugarria identifikatzen du

Berez.: lanpostu bereziaren ezaugarria identifikatzen du

II. ERANSKINA

IKASTETXEAK ORDENATZEA

1.- Ikastetxeak ordenatzeko parametroak.

a) Lurralde historikoa.

Ikastetxe-zerrenda horiek dauden lurralde historikoaren arabera ordenatuko da. Lehenik Arabakoak, gero, Gipuzkoakoak, eta, azkenik, Bizkaikoak.

b) Eskola-barrutia.

Lurralde historiko bakoitzean, dauden eskola-barrutiaren arabera ordenatuko dira ikastetxeak, ekainaren 26ko 106/2007 Dekretuaren eranskinean argitaratutako ordenari jarraituz (uztailaren 10eko EHAA).

c) Udalerria.

Eskola-barruti bakoitzean, dauden udalerraren arabera ordenatuko dira ikastetxeak, euren izen ofizialaren arabeko ordena alfabetikoan, A-tik hasita.

d) Ikastetxe-tipologia.

Udalergi bakoitzean, tipologiaren arabeko talde hauen arabera ordenatuko dira ikastetxeak:

- Lehenik, Haur Hezkuntzako Ikastetxeak (HE), Lehen Hezkuntzako Ikastetxeak (LHI), Haur eta Lehen Hezkuntzako Ikastetxeak (HLH), Hezkuntza Bereziko Ikastetxeak (HBI) eta Ikastetxe Publiko Bateratuak (IPB).

- Bigarrenik, lurralde-ordezkaritzetako Hezkuntza Baliabideak.

- Hirugarrenik, euskal hezkuntza-administrazioko irakasle-lanpostuak dauden Ikastetxe Pribatuak.

- Laugarrenik, Helduen Hezkuntzako Ikastetxeak (HHI).

- Bosgarrenik, Urrutiko Oinarrizko Hezkuntzarako Ikastetxeak (UOHI).

- Seigarrenik, Hizkuntza Eskola Ofizialak (HEO).

- Zazpigarrenik, Bigarren Hezkuntzako Ikastetxeak (BHI) eta Goi-mailako Lanbide Heziketako Berriazko Institutuak (GLHBI).

- Zortzigarrenik, Urrutiko Batxilergoko Institutuak (UBI).

- Bederatzigarrenik, Arte Eskolak (AE), Goi-mailako Diseinu Eskolak (GDE) eta Arte eta Goi-mailako Diseinu Eskolak (AGDE).

- Hamargarrenik, Musika Kontserbatorio Nagusiak (MKN), Musika Kontserbatorio Profesionalak (MKP) eta Oinarrizko Musika Kontserbatorioak (OMK).

- Hamaikagarrenik, Kirol Irakaskuntzetako Ikastetxe Publikoak (KIIP).

- Hamabigarrenik, ikusteko desgaitasuna duten ikasleak hezkuntzan txertatzeko Baliabidetegiak, Prestakuntzan eta Hezkuntzaren Berrikuntzan Laguntzeko Zentroak (Berritzeguneak) eta, azkenik, Ospitaleko, Etxeko Arretarako eta Arreta Terapeutikorako Lurraldeko Zentroak.

e) Ikastetxearen kodea.

Talde bakoitzean, 6 digituko kodearen arabera ordenatuko dira ikastetxeak, zenbaki-kode txikienetik handienera.

2.- Ikastetxeen zerrenda ordenatua urtero argitaratuko da 5. artikulua aipatzen duen Langileria Kudeatzeko zuzendariaren ebazpenaren bidez.

III. ERANSKINA

ESPEZIALITATEAK ETA LANPOSTUAREN BESTE EZAUGARRI BATZUK
ORDENATZEA

1.- Espezialitateak.

1.1.- Maisu-maistren Kidegoa.

Ord.	Kod.	Espezialitatea		
1.	275	26	0954	*Ingelesa (DBH 1-2)
2.	276	26	0955	*Frantsesa (DBH 1-2)
3.	278	26	0956	*Heziketa fisikoa (DBH 1-2)
4.	279	26	0957	*Musika (DBH 1-2)
5.	280	26	0962	*Gaztelania eta literatura (DBH 1-2)
6.	281	26	0963	*Euskara (DBH 1-2)
7.	282	26	0964	*Matematika (DBH 1-2)
8.	283	26	0965	*Natura zientziak (ESO 1-2)
9.	284	26	0966	*Gizarte zientziak geogr. hist. (DBH 1-2)
10.	285	26	0967	*Plastika eta ikus-hezkuntza (DBH 1-2)
11.	286	26	0968	*Teknologia (DBH 1-2)
12.	100	16	0954	Ingelesa
13.	101	13	0673	HHE Ingelesa (HHE)
14.	102	16	0659	Zeinu-mintzaira
15.	103	26	0659	Zeinu-mintzaira (DBH 1-2)
16.	104	16	0959	Entzumena eta hizkuntza
17.	105	26	0959	Entzumena eta hizkuntza (DBH 1-2)
18.	106	13	0959	Entzumena eta hizkuntza (HHE)
19.	107	16	0958	Pedagogia terapeutikoa
20.	108	26	0958	Pedagogia terapeutikoa (DBH 1-2)
21.	109	28	0958	Pedagogia terapeutikoa (ZIG)
22.	110	13	0958	Pedagogia terapeutikoa (HHE)
23.	111	16	0953	Aholkularia
24.	112	16	0956	Gorputz-hezkuntza
25.	113	16	0957	Musika
26.	114	16	0950	Haur-hezkuntza
27.	115	16	0952	Euskara
28.	116	16	0955	Frantsesa
29.	117	13	0674	HHE Frantsesa (HHE)
30.	118	16	0951	Lehen Hezkuntza
31.	119	13	0675	HHE Matematika (HHE)
32.	120	13	0676	HHE Gizarte zientziak (HHE)
33.	121	13	0677	HHE Hasierako irakaskuntza (HHE)

* Espezialitate horietako lanpostuak 5. artikuluaen 1.a) atalean deskribatutako baldintzak betetzen dituztenei soilik esleituko zaizkie.

1.2.- Bigarren Hezkuntzako Irakasleen Kidegoa.

Ord.	Kod.	Espezialitatea		
34.	200	20	0102	Frantsesa
35.	201	20	0103	Ingelesa
36.	202	20	0104	Alemana
37.	203	20	0106	Euskal hizkuntza eta literatura
38.	204	20	0124	Geografia eta historia
39.	205	20	0126	Latina
40.	206	20	0127	Grekoa
41.	207	20	0131	Musika
42.	208	20	0132	Filosofia
43.	209	20	0133	Italiera
44.	210	20	0134	Gaztelania eta literatura

2012ko ekainaren 19a, asteartea

Ord.	Kod.	Especialitatea		
45.	211	20	0146	Kultura klasikoa
46.	212	20	0202	Fisika eta kimika
47.	213	20	0205	Ekonomia
48.	214	20	0224	Matematika
49.	215	20	0237	Informatika
50.	216	20	0239	Marrazketa
51.	217	20	0255	Biologia eta geologia
52.	218	20	0256	Hezkuntza-orientabidea
53.	219	20	0298	Laneko prestakuntza eta orientabidea
54.	220	20	0327	Gorputz-hezkuntza
55.	221	20	0401	Teknologia
56.	222	20	0986	Curriculum-aniztasun soziolinguistikoa
57.	223	20	0989	Curriculum-aniztasun zient.-teknol.
58.	224	20	1501	Enpresen administrazioa
59.	225	20	1502	Merkataritza-antolaketa eta -kudeaketa
60.	226	20	1503	Elikagaien industriako prozesuak
61.	227	20	1504	Nekazaritzako ekoizpen prozesuak
62.	228	20	1505	Arte grafikoetako prozesuak eta produktuak
63.	229	20	1506	Ibilgailuen mantentze lanetako antolam. eta prozesuak
64.	230	20	1507	Eraikuntza zibilak eta etxegintza
65.	231	20	1508	Fabrikazio mekanikoko antolamendua eta proiektuak
66.	232	20	1509	Energia-sistemetak antolamendua eta proiektuak
67.	233	20	1510	Sistema elektroteknikoak eta automatikoak
68.	234	20	1511	Sistema elektronikoak
69.	235	20	1512	Ostalaritza eta turismoa
70.	236	20	1513	Komunikazio-prozesuak eta -bideak
71.	237	20	1514	Arotzeriako eta altzarigintzako prozesuak eta produktuak
72.	238	20	1516	Ehun, jantzi eta larru prozesuak eta produktuak
73.	239	20	1517	Irudi pertsonalerako aholkularitza eta prozesuak
74.	240	20	1518	Analisiak eta industria kimika
75.	241	20	1519	Prozesu sanitarioak
76.	242	20	1520	Diagnostiko klinikoko prozes. eta produktu ortop.
77.	243	20	1521	Esku-hartze soziokomunitarioa
78.	299	20	1522	Akuikultura-prozesuak
79.	244	20	1581	HHE Komunik.-arloan gaztelania
80.	245	20	1582	HHE Komunik.-arloan ingeleza
81.	246	20	1583	HHE Komunik.-arloan euskara
82.	247	20	1584	HHE Komunik.-arloan frantsesa
83.	248	20	1585	HHE Arlo zientifiko-teknologikoa
84.	249	20	1586	HHE Ezagutza sozialaren arloa
85.	250	20	1900	Filosofia ingelesez
86.	251	20	1901	Kultura klasikoa ingelesez
87.	252	20	1902	Geografia eta historia ingelesez
88.	253	20	1903	Matematika ingelesez
89.	254	20	1904	Biologia eta geologia ingelesez
90.	255	20	1905	Fisika eta kimika ingelesez
91.	256	20	1906	Marrazketa ingelesez
92.	257	20	1907	Musika ingelesez
93.	258	20	1908	Gorputz-hezkuntza ingelesez
94.	259	20	1909	Teknologia ingelesez
95.	260	20	1910	Informatika ingelesez
96.	261	20	1911	Ekonomia ingelesez
97.	262	20	1950	Filosofia frantsesez
98.	263	20	1951	Kultura klasikoa frantsesez
99.	264	20	1952	Geografia eta historia frantsesez
100.	265	20	1953	Matematika frantsesez

2012ko ekainaren 19a, asteartea

Ord.	Kod.	Especialitatea		
101.	266	20	1954	Biologia eta geologia frantsesez
102.	267	20	1955	Fisika eta kimika frantsesez
103.	268	20	1956	Marrazketa frantsesez
104.	269	20	1957	Musika frantsesez
105.	270	20	1958	Gorputz-hezkuntza frantsesez
106.	271	20	1959	Teknologia frantsesez
107.	272	20	1960	Informatika frantsesez
108.	273	20	1961	Ekonomia frantsesez
109.	274	20	1970	Hizkuntza indartzeko irakaslea
110.	275	26	0954	Ingelesa (DBH 1-2)
111.	276	26	0955	Frantsesa (DBH 1-2)
112.	277	26	0979	Alemana (DBH 1-2)
113.	278	26	0956	Gorputz-hezkuntza (DBH 1-2)
114.	279	26	0957	Musika (DBH 1-2)
115.	280	26	0962	Gaztelania eta literatura (DBH 1-2)
116.	281	26	0963	Euskara (DBH 1-2)
117.	282	26	0964	Matematika (DBH 1-2)
118.	283	26	0965	Natura zientziak (DBH 1-2)
119.	284	26	0966	Gizarte zientziak geogr. hist. (DBH 1-2)
120.	285	26	0967	Plastika eta ikus-hezkuntza (DBH 1-2)
121.	286	26	0968	Teknologia (DBH 1-2)

1.3.- Hizkuntza Eskola Ofizialetako Irakasleen Kidegoa.

Ord.	Kod.	Especialitatea		
122.	287	41	0750	Ingelesa (HEO)
123.	288	41	0751	Frantsesa (HEO)
124.	289	41	0752	Alemana (HEO)
125.	290	41	0753	Euskara (HEO)
126.	291	41	0754	Errusiera (HEO)
127.	292	41	0755	Atzeritarrentzako gaztelania (HEO)
128.	293	41	1756	Italiera (HEO)
129.	294	41	1757	Portugesera (HEO)

1.4.- Lanbide Heziketako Irakasle Teknikoen Kidegoa.

Ord.	Kod.	Especialitatea		
130.	300	20	1541	Administrazio-kudeaketako prozesuak
131.	301	20	1542	Merkataritza prozesuak
132.	302	20	1543	Elikagaiak egiteko operazioak eta ekipoa
133.	303	20	1544	Nekazaritzarako produkzio lanak eta ekipoa
134.	304	20	1545	Arte grafikoetan ekoizpena
135.	305	20	1546	Ibilgailuen mantentzea
136.	306	20	1547	Eraikuntza-proiektuen bulegoa
137.	307	20	1548	Fabrikazio mekanikoko proiektuen bulegoa
138.	308	20	1549	Bero eta fluido ekipoen instalaz. eta manten. lanak
139.	309	20	1550	Instalazio elektroteknikoak
140.	310	20	1551	Ekipo elektronikoak
141.	311	20	1552	Sukaldaritza eta gozogintza
142.	312	20	1553	Jatetxeko zerbitzuak
143.	313	20	1554	Irudi eta soinu teknikak eta prozedurak
144.	314	20	1555	Informatika-sistemak eta -aplikazioak
145.	315	20	1556	Laborategia
146.	316	20	1557	Prozesuen operazioak
147.	317	20	1558	Arotzeria, altzarigintza eta instalazioa
148.	318	20	1560	Makinen mekanizazioa eta mantentzea
149.	319	20	1561	Soldadura
150.	320	20	1562	Patroigintza eta jantzigintza
151.	321	20	1563	Estetika
152.	322	20	1564	Ile-apainketa
153.	323	20	1566	Diagnostiko klinikoko eta ortop. prozedurak
154.	324	20	1567	Sanitate eta asistentzia prozedurak

2012ko ekainaren 19a, asteartea

Ord.	Kod.	Especialitatea		
155.	325	20	1568	Gizartearentzako zerbitzuak
156.	399	20	1570	Hazkuntzako eta laborantzako instalazioak eta ekipoa
157.	326	28	2541	ZIG (Admin. kudeak. proz.)
158.	327	28	2542	ZIG (Merkataritza-pz.)
159.	328	28	2543	ZIG (El. prod. lan. ekip.)
160.	329	28	2544	ZIG (Nekaz. prod. lan. ekip.)
161.	330	28	2545	ZIG (Art. graf. prod.)
162.	331	28	2546	ZIG (Ibilg. mant.)
163.	332	28	2547	ZIG ()
164.	333	28	2548	ZIG (Fab. mek.)
165.	334	28	2549	ZIG ()
166.	335	28	2550	ZIG (Inst. elektrot.)
167.	336	28	2551	ZIG (Ek. elektron.)
168.	337	28	2552	ZIG (Sukaldaritza eta gozog.)
169.	338	28	2553	ZIG (Jatetxeen zerb.)
170.	339	28	2554	ZIG (Ir. so. tek. proz.)
171.	340	28	2555	ZIG (Inf. apl. sist.)
172.	341	28	2556	ZIG (Laborategia)
173.	342	28	2557	ZIG (Proz. oper.)
174.	343	28	2558	ZIG (Arotz. altza. fab.)
175.	344	28	2560	ZIG (Mak. mek. mant.)
176.	345	28	2561	ZIG (Soldadura)
177.	346	28	2562	ZIG (Patroi. jantzi.)
178.	347	28	2563	ZIG (Estetika)
179.	348	28	2564	ZIG (Ile-apainketa)
180.	349	28	2566	ZIG (Diag. kl. or. proz.)
181.	350	28	2567	ZIG (San. as. proz.)
182.	351	28	2568	ZIG (Gizart. zerb.)
183.	352	28	2570	ZIG (hazk. lab. inst. ek.)
184.	360	28	0679	ZIG

1,5.- Arte Plastikoetako eta Diseinuko Irakasleen Kidegoa.

Ord.	Kod.	Especialitatea		
185.	601	44	1607	Marrazketa artistikoa eta kolorea
186.	602	44	1609	Barrualdeen diseinua
187.	603	44	1612	Diseinu grafikoa
188.	604	44	1616	Artearen historia
189.	605	44	1620	Materialak eta teknologia: diseinua
190.	606	44	1622	Bitarteko informatikoak
191.	607	44	1729	Argazkigintza
192.	608	44	1608	Marrazketa teknikoa
193.	609	44	1621	Ikus-entzunezko baliabideak
194.	610	44	1623	Industria-antolakuntza eta -legeria
195.	611	44	1625	Bolumena

1,6.- Arte Plastikoetako eta Diseinuko Maisu-maistren Kidegoa.

Ord.	Kod.	Especialitatea		
196.	620	44	1658	Argazkigintza eta erreproduzio-prozesuak
197.	621	44	1659	Modelismoa eta maketagintza

1.7.- Musika eta Arte Eszenikoen Irakasleen Kidegoa.

Ord.	Kod.	Especialitatea		
198.	701	42	0801	Pianoa
199.	702	42	0802	Biolina
200.	703	42	0803	Biolontxelo
201.	704	42	0804	Arpa
202.	705	42	0805	Gitarra
203.	706	42	0807	Biola
204.	707	42	0808	Kontrabaxua
205.	708	42	0810	Oboea
206.	709	42	0811	Klarineta
207.	710	42	0812	Fagota
208.	711	42	0813	Saxofoia
209.	712	42	0814	Tronpa
210.	713	42	0815	Tronpeta
211.	714	42	0816	Tronboia
212.	715	42	0817	Tuba
213.	716	42	0818	Txistua
214.	717	42	0819	Kantua
215.	718	42	0829	Akordeoa
216.	719	42	0831	Organoa
217.	720	42	0851	Perkusioa
218.	721	42	0853	Lutheria
219.	722	42	0858	Musikaren historia
220.	723	42	0875	Gitarra elektrikoa
221.	724	42	0880	Pianista laguntzailea
222.	725	42	0881	Musika hizkuntza
223.	726	42	0883	Korua
224.	727	42	0896	Klabezina
225.	728	42	0911	Zango-biola
226.	729	42	0912	Zeharkako txirula
227.	730	42	0913	Moko txirula
228.	731	42	0917	Konposizioaren oinarriak
229.	732	42	0922	Orkestra

2.- Hizkuntza-eskakizunak.

2,1.- 1. hizkuntza-eskakizuna.

2,2.- 2. hizkuntza-eskakizuna.

3.- Derrigorrezkotasun-datak.

3.1.- Amaitua.

3.2.- Atzeratua.

4.- Ibiltaritzak.

4.1.- Ez-ibiltaria.

4.2.- Ibiltaria.

5.- Bereziak.

5,1.- Ez-berezia.

5,2.- Berezia.